

Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia- KLIMA 2050ren lehen tarteko ebaluazioa Laburpena



Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia- KLIMA 2050ren lehen tarteko ebaluazioa Laburpena





Argitaraldia:

2021eko abendua

© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Egilea:

BC3 Basque Centre for Climate Change
Klima Aldaketa Ikergai

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun
eta Ingurumen Saila – Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea, 36 - 6. solairua • 48011 - BILBO
www.euskadi.eus
www.ihobe.eus

Azalaren diseinua:

dualxj comunicación y diseño

Edukia:

Dokumentu hau LIFE IP URBAN KLIMA 2050 proiektuaren
esparruan egin da (LIFE 18 IPC/ES/000001)

Edukien aurkibidea

1	Sarrera	2
2	Aurrerapen-mailaren laburpena eta ondorioak	4
3	Gomendioak.....	10

Irudien aurkibidea

1. irudia. KLIMA 2050 Estrategiaren jarraipen-txostenaren laburpena. 2017	3
2. irudia: KLIMA 2050 Estrategiaren jomugen aurrerapenaren ebaluazioa.....	5
3. irudia: Euskadiko BEG isurien bilakaera eta 2050erako markatutako ibilbidea.....	8
4. irudia: Energia berriztagarriaren kontsumoaren bilakaera (%) azken energia-kontsumoan	8


Taulen aurkibidea

Tabla 1: Grado de avance de los distintos objetivos.....	4
Tabla 2: Grado de avance de las distintas metas de KLIMA 2050.	6

1 Sarrera


2015eko ekainean, Eusko Jaurlaritzak Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia –KLIMA 2050– onetsi zuen, klima-aldaketaren arloan nazioartean ezarritako konpromisoei elkartasunez eta modu koordinatuan laguntzeko helburuarekin. Estrategia hori “karbono gutxiko ekonomia lehiakorra eta klima-efektuetara egokitua” lortzeko ikuspegiarekin adostu zen. Halaber, KLIMA 2050 Estrategiak helburu bikoitza ezarri zuen 2050erako: 1) berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak % 80 murriztea 2005arekin alderatuta; eta 2) klima-aldaketaren inpaktuen aurkako lurraldearen erresilientzia bermatzea, arintzeko eta moldatzeko helburuak konbinatuz.

Helburu horiek lortzeko, Estrategiak bederatzi jomuga eta 24 jarduketa-lerro ezartzen ditu, bost urteko aldietan garatu beharreko Ekintza Planetan definitutako ekintza espezifikoekin osatzen direnak. Lehen Ekintza Planak ibilbide-orri bat hartzen du barnean, 2015-2020 aldian garatzeko 70 ekintza espezifiko zehazten dituen. Gaur egun Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024 lantzen ari dira.



KLIMA 2050 Estrategiak, halaber, bi premia ezartzen ditu: 1) ekintza espezifikoaren inplementazio-mailaren jarraipena egitea; eta 2) helburuen lorpena aldi-aldi ebaluatzea eta, behar izanez gero, eguneratzea.

Konpromiso horietako lehenari erantzunez, 2017an lehen bi urtean behingo jarraipen-txostena (2015-2017) egin zen, estrategiaren lehen aldirako 70 ekintzen ezarpenaren izandako aurrerapen-maila aztertu zuena. Lehen txosten horren arabera, Estrategiaren lehen aldirako definitutako 70 ekintzetatik, 2017an % 76 exekutatzen ari ziren, % 10 inplementatzen hasi gabe zeuden eta % 14 osorik inplementatuta zeuden. Oro har, esan liteke % 47 aurreratu zela KLIMA 2050 Estrategiaren exekuzioan (1. irudia).



1. IRUDIA. KLIMA 2050 ESTRATEGIAREN JARRAIKEN-TXOSTENAREN LABURPENA. 2017

Bestalde, bi konpromiso horietako bigarrenari erantzunez, KLIMA 2050 Estrategiaren tarteko lehen ebaluazio bat egin da, eta emaitza nagusiak dokumentu honetan laburbiltzen dira. Ebaluazio horrek bi helburu ditu: 1) estrategiaren helburuen aurrerapen-maila ebaluatzea eta estrategia hori lortzearekin lotutako erronkak eta aukerak identifikatzea; eta 2) Estrategia bera eguneratzeko oinarriak ezartzeko eta Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024 lantzeko oinarriak ezartzea.

Ebaluazio-prozesuak klima-aldaketaren erronkaren testuinguruaren zenbait eskalatako (nazioartekoa, estatukoa eta Euskadikoa) berrikuspina izan du abiapuntu. Ondoren, 70 ebaluazio-adierazle baino gehiagoko bateria definitu eta bildu da. Adierazle horiek emandako informazioa datu kualitatiboekin osatu da, eta ebaluatutako area desberdinetako eragile eta adituekin kontrastatu da. Informazio horretan oinarrituta, lerro, jomuga eta helburuen aurrerapen-maila ebaluatu da. Azkenik, hainbat gomendio eman dira Estrategia bera eguneratzeko eta hurrengo aldirako ibilbide-orria prestatzeko.

2 Aurrerapen-mailaren laburpena eta ondorioak

Ondoren, azken urteotan KLIMA 2050 Estrategiaren helburuak eta jomugak lortzeko ikusitako aurrerapen-mailaren laburpena aurkezten da.

Helburuetan eta jomugetan izandako aurrerapen-maila ebaluatzeko erabilitako eskala hau izan da:

-  Joera negatiboa da
-  Aurrerapen positibo batzuk, baina nahikoak ez direnak edo joera gurutzatuak dituztenak
-  Joera positiboa da
-  Ezin da ebaluatu*

(*) Eskura dauden ezagutza eta datuak kontuan hartuta, zenbait helburu eta jomuga ez-ebaluagarritzat jotzen dira.

Beheko taulan KLIMA 2050 Estrategiaren bi helburu nagusien ebaluazioaren laburpena dago.

1. TAULA: KLIMA 2050 ESTRATEGIAREN HELBURUEN AURRERAPEN-MAILA.

1A helburua	Arintzea	Euskadiko BEG isuriak 2030erako gutxienez % 40 murriztea eta 2050erako gutxienez % 80 murriztea 2005. urtearekin alderatuta
	2005-2019 aldian, BEG isuriak % 26,9 murriztu ziren, Estrategian ezarritako helburuekin bat. Hala ere, azken urteotan dezelerazio bat egon da isuriaren murrizketa-tasan: 2015etik 2019ra bitartean isuriak % 4 murriztu dira.	
1B helburua	Arintzea	2050ean energia berriztagarriaren kontsumoa azken kontsumoaren gaineko % 40 izatea
	Berriztagarrien kuota % 1,3 hazi da 2015etik 2019ra bitartean. Azken urte horretan % 14,6koa izan da. Energia berriztagarrien presentzia handitu behar da 2030erako Estrategian ezarritako helburua lortzeko.	
2. helburua	Moldatzea	Euskal lurraldearen klima-aldaketaren aurkako erresilientzia ziurtatzea
	Lehendik dauden metodologiek eta datuek ez dute aurrerapen-maila ebaluatzeko aukerarik ematen. Hala ere, eskura dugun informazioarekin esan daiteke Euskadik aurrera egin duela lurralde-mailan moldatze-politikak integratzeko orduan, eta aurrera egin behar dela udal eta lurralde historiko mailako konpromisoak estrategiako helburu eta jomugekin lerrokatzeko eta indartzeko orduan.	

Irudi honetan KLIMA 2050 Estrategiaren jomuga bakoitzerako egindako ebaluazioa laburbiltzen da. 1, 3, 5, 6 eta 9. jomugek aurrerapen positibo batzuk erakusten dituzte, baina ez dira nahikoak edo joera gurutzatuak dituzte; aldiz, 2. jomugak –mugikortasunari eta garraioari lotuta dagoenak– joera negatiboa erakusten du. Bestalde, batez ere

moldatzeari lotutako 4., 7. eta 8. jomugak ezin izan dira kuantitatiboki ebaluatu, ez baitago informazio nahikorik.




- ☹️ Joera negatiboa da
- 😊 Aurrerapen positibo batzuk, baina nahikoak ez direnak edo joera gurutzatuak dituztenak
- ☺️ Joera positiboa da
- ⚪️ Ezin da ebaluatu*

2. IRUDIA: KLIMA 2050 ESTRATEGIAREN JOMUGEN AURRERAPENAREN EBALUAZIOA

Iturria: geuk egina

Beheko taulan KLIMA 2050 Estrategiaren jomugen ebaluazioaren laburpena dago.

2. TAULA: KLIMA 2050EN JOMUGA DESBERDINEN AURRERAPEN-MAILA.


1. jomuga ☺		Karbono gutxiko energia-eredu baten aldeko apustua egitea
	Energia-isuriak % 3,4 murriztu dira 2015etik 2019ra bitartean. Murrizketa-erritmoa handitu behar da 2030erako Estrategian ezarritako helburua lortzeko.	
2. jomuga ☺		Isuririk gabeko garraio baterantz
	Garraioa da Euskadiko BEG isurien iturri nagusia (guztizkoaren % 34 2019an). Sektore honetako isuriak % 9 igo dira 2015az geroztik.	
3. jomuga ☺		Lurraldearen efizientzia eta erresilientzia areagotzea
	Hirigune trinkoago eta dentsitate handiagoko etarantzko joera ikusten da, lurzorua erabilera efizienteagoarekin. Azpiegitura berdeen eta area babestuen sare garrantzitsua dago. Gaur egun, Euskadiko udalerriek ahalegina egiten dute moldatzea beren udal-plangintzan txertatzeko, eta etorkizunean handitu egin behar da moldatzea udal-plangintzan txertatuta duten udalerrien kopurua, banaka nahiz modu mankomunatu. Aldian-aldean egin behar dira moldatze-planen inplementazio-mailaren eta eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa.	
4. jomuga ☹		Natura-ingurunearen erresilientzia handitzea.
	Dagoen informazioak ez du ahalbidetzen helburu horren balorazio kuantitatiboa egitea. Hala ere, hau ikusten da: - Baso-azalera autoktonoa ia konstante mantentzen da 195.000 hektarea inguruan (baso-azalera osoaren % 50 inguru). - Baso-azaleraren % 20 jasangarritasun-irizpideen arabera kudeatzen da (FSC eta PEFC ziurtagiriak). - Europako Ingurumen Agentziaren Europako Naturaren Informazio Sistemaren zerrendatutako Euskadiko habitaten gutxi gorabehera % 20ren egoera desegokia-txarra da. - Lurraldearen % 65-90ek lurzoru-galerak ditu 10t/ha-tik beherako higadura-prozesuengatik.	
5. jomuga ☺		Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren isuriak murriztea
	Jomuga horrek helburu kuantifikagarriak ez duen arren, hark barnean hartzen dituen jarduketak-ildoak joera desiragarriak markatzen dituzte: "Nekazaritza-ekoizpen integratua, ekologikoa, tokikoa eta BEG isuri txikiagoak dituen sustatzea" eta "Karbono-hustuleku izateko ahalmena handitzea". Lerro hauetako adierazleak hau erakusten dute:	

	- Eremu mugatu bat izan arren (nekazaritza-azalera osoaren % 3,45), nekazaritza ekologikoari eskainitako azalera bikoiztu egin da 2015etik 2019ra bitartean. - Nekazaritza-sektoreko isuriak % 16 murriztu dira 2015az geroztik. - Hustulekuen xurgapenak behera egin dute 2005 urteaz geroztik. 2019an, hustulekuen guztizkoak 1,7 Mt CO₂ bal. xurgatu zituen; hau da, % 12ko beherakada izan zen 2015. urtearekiko. Jomugaren aurrerapena positiboa da, baina ahaleginak areagotu behar dira lehen sektorearen klima-aldaketarekiko erresilientzia handitzeko eta hustulekuak indartzeko.
6. jomuga	 Hiri-hondakinen sorrera murriztea eta tratamendurik gabeko zero isurketa lortzea Biztanleko hondakinen sorrera % 8 inguru igo da 2015etik 2018ra bitartean. Hala ere, aldi horretan isurketa- eta balorizazio-tasa hobetu da, gaikako bilketa handitzeari esker. Hondakinen kudeaketan norabide egokian ari gara aurrera egiten, baina beharrezkoa da sorrera murrizteko ahaleginak areagotzea.
7. jomuga	 Arriskuei aurrea hartuz Gaur egun, ez dago datu kuantitatiborik jomuga horren aurrerapen-mailaren ebaluazioa eskaintzeko. Eskura dagoen informazioarekin esan daiteke Euskadi ahalegin handiak egiten ari dela euskal udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua identifikatzeko eta ebaluatzeko. Era berean, erregimen plubiometrikoa eta lurraldearen kalitate-txostenak kontuan hartuta, ur-horidura segurua da, eta uraren kalitatea ona da.
8. jomuga	 Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea Gaur egun, ez dago datu kuantitatiborik jomuga horren aurrerapen-mailaren ebaluazioa eskaintzeko. Ikusten da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko ikerketa-taldeek laguntzen dutela berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzen, ikerketa-proiektuetan parte hartuz, artikuluko zientifikoak argitaratuz, patenteen bidez eta erakundeei aholkularitza emanez. Eusko Jaurlaritza helburu horri laguntzen ari zaio KLIMATEK I+G+b bezalako hainbat finantzaketa-bideren bidez. Klima-aldaketaren "Hub" bat sortzea aurreikusita dago, klima-informazioa biltzeko eta osatzeko helburuarekin.
9. jomuga	 Euskal administrazio publiko arduratsua, eredugarria eta erreferentzia klima-aldaketari dagokionez Ebaluazio honetan jasotako datuek erakusten dute jomuga horri lotutako ahaleginak areagotu egin beharko liratekeela helburuak lortzeko. Eusko Jaurlaritzaren energia-kontsumoa eta BEG isuriak ia konstante mantendu dira azken urteotan, eta energia berriztagarriak Eusko Jaurlaritzaren eraikinetan kontsumitutako guztizko energiaren % 1,74 besterik ez dira. Horrez gain, energia alternatiboek propulsatutako ibilgailu publikoen parkearen ehunekoa nahiko txikia da.

Oro har, ondoriozta daiteke KLIMA 2050 Estrategiaren helburuak eta jomugak lortzeko ahaleginak areagotu beharko liratekeela. Arintzearen eremuan, Estrategiak BEG isuriak % 40 murrizteko helburua ezartzen du 2030erako 2005. urtearekin alderatuta, eta % 80 murriztekoa 2050. urterako. 2005-2019 aldian, BEG isuriak % 26,9 murriztu dira. Hala ere, aztertutako aldian aurrera egin ahala, isuriak murrizteko erritmoa jaisten ari da: 2015etik 2019ra bitartean, BEG isuriak % 4 murriztu dira. Gaur egungo arintze-erritmoa igo egin beharko litzateke 2030erako ezarritako murrizketa-helburua lortzeko (3. irudia). Testuinguru horretan, **garraioaren sektoreko isurien igoera nabarmentzen da, Euskadiko BEG isurien iturri nagusia bihurtu baita.** Sektore honetako isuriak handituz joan dira 2011tik 2017ra bitartean, eta urte horretan maximora iritsi ondoren 2018an eta 2019an behera egiten hasi dira. Hala ere, 2015etik 2019ra bitarteko igoera % 9koa da.


Bestalde, Europako Batzordeak arintze-helburu berriak definitu ditu, asmo handiagokoak (BEG isurien % 55eko murrizketa 2030erako 1990. urtearekin alderatuta). Horregatik, **KLIMA 2050 Estrategiaren helburuak eguneratu beharko lirateke Erkidegoko helburuak modu arduratsuan eta solidarioan bete ahal izateko behar adina handizaleak izateko.**

KLIMA 2050 Estrategiak lehen helburuaren barruan ezartzen du, halaber, 2050erako energia berriztagarriaren kontsumoa azken energia-kontsumoaren % 40 izatera iristea. 2019an (eskuragarri dagoen azken datua) berriztagarrien kuota % 14,6koa izan zen (4. irudia); beraz, 1,3 puntuko hazkundea izan zuen 2015eko kuotarekiko (% 13,3), eta 2,2 puntuko jaitsiera aurreko urtearekiko. **Berriztagarrien barneratzearen egungo erritmoa handitu egin beharko litzateke, ezarritako helburua lortzeko.**



3. IRUDIA: EUSKADIKO BEG ISURIEN BILAKAERA ETA 2050ERAKO MARKATUTAKO IBILBIDEA

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko isurien inbentarioa



4. IRUDIA: ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN KONTSUMOAREN BILAKAERA (%) AZKEN ENERGIA-KONTSUMOAN

Iturria: EEE

Moldatzearen kasuan, aurrerapen-mailaren ebaluazioa konplexuagoa da, **gaur egun ez baitago moldatzearen ebaluazioa sistematizatzeko aukera ematen duen nazioarteko erreferenterik.** Euskadin, zehazki, aurrerapenak ikusten dira, baina

helburu kuantifikagarriarik eta helburu zehatzak dituen adierazlerik ez egoteak zaildu egiten du EAEko lurraldearen klima-aldaketa-erresilientzia bermatzeko aurrerapen-maila zehaztea.

3 Gomendioak

Egindako azterketak zenbait jarduketa-eremu identifikatu ditu, eta horietan ahalegin handiagoa egin beharko da datozen urteetan. Zehazki, energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea eta energia-efizientzia, mugikortasuna, hirigunea eta natura-ingurunea. Taula honetan ikus daitezke horietako bakoitzari buruzko balorazio batzuk.

Energia berriztagarriak	KLIMA 2050 Estrategian urte horretan azken energia-kontsumoaren gaineko berriztagarri-kuotaren % 40 lortzeko helburua ezarri zen arren, 2020ko abenduan Eusko Jaurlaritzak hartu zuen konpromisoaren arabera energia berriztagarrien energiaren azken kontsumoaren gaineko kuota % 20 izatea lortuko da legegintzaldi honetan (2024an). Tarteko helburu berri horrek ahalegin handiagoa eskatzen du, eta energia berriztagarrien txertatze-maila handiagoa bermatzeko neurriak eta politikak gauzatzea eskatuko du.
Eraikinak birgaitzea eta energia-efizientzia	Energia-efizientzia klima-ekintzaren funtsezko zutabea da. Euskadik ahalegin handiak egin ditu norabide horretan, energia-ziurtagiria duten eraikinen kopurua handituz eta eraikin berrietako efizientzia sustatuz. Hala ere, gaur egun ziurtatutako etxebizitzaren % 1ek bakarrik lortu du kalifikazio altua, eta % 43k, berriz, ziurtagiri baxua lortu du. Lehendik dagoen etxebizitza-parkearen adina eta ezaugarriak zein diren jakinda, garrantzitsua da arlo horretan ahaleginak areagotzea eta EAEko etheen energia-kontsumoa murriztea ahalbidetuko duten birgaitzeko eta energia-efizientzia handitzeko jarduketaren sustapena areagotzea, KLIMA 2050 Estrategiaren helburuak lortzen laguntzeko.
Mugikortasuna	Garraioaren sektorea deskarbonizaziotik urrun dago oraindik ere; izan ere, erregai fosilen mendekotasun handia izaten jarraitzen du, eta BEG isuri handienak dituen sektorea da. Izan ere, sektore horretako isuriak % 9 igo dira 2015az geroztik, eta sektore horren azken energia-kontsumoaren % 6,8 besterik ez dagokie energia berriztagarriei. Horregatik, KLIMA 2050 Estrategiaren 2. jomuga (isuririk gabeko garraio baterantz) lortzeko ahaleginak nabarmen handitzea gomendatzen da; hori, aldi berean, beharrezkoa da arintze-helburuari laguntzeko.
Hirigunea	Euskadik nabarmen egin du aurrera klima- eta moldatze-politikak bere lurralde-planetan eta plan sektorialetan integratzeari dagokionez. Tokiko eskalan, Udalsarea 2030en eta Ihoberen bidez tokiko jasangarritasun-planetan moldatze- eta arintze-politikak txertatzeari emandako bultzada nabarmentzen da. Hala ere, oraindik lana dago egiteko klima-estrategiak udal-politiketan modu eraginkorrean integratzeko. Mota honetako plan espezifikoak hartzeko urrats erabakigarri posible bat hiriek beren klima-plangintza propioa garatzeko legeko betebeharra ezartzea izango litzateke, etorkizuneko Euskal Autonomia Erkidegoko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen barruan.

Beharrezkoa da lehorreko natura-ingurunearen kudeaketa hobetzea. Kudeaketa jasangarriaren ziurtagiria duen baso-azalera handitu den arren, espezie autoktonoak dituen baso-azalera (baso-azalera osoaren % 50 dena) ia konstante mantentzen da. Gainera, beheranzko joera ikusten da lurraldeko lehorreko ekosistemen xurgapenetan 2005az geroztik.

2012. urteaz geroztik, habitat askoren kontserbazioa hobetu da. Hala ere, klima-aldaketarekiko bereziki kalteberak diren eremuei lotutako habitatak daude; esate baterako, kostaldekoak, eta degradazio-maila desberdinak dituzte. Gainera, Europako Naturaren Informazio Sistemaren zerrendatutako Euskadiko habitaten % 20ren egoera desegokia da, eta euskal lurraldearen % 80k muturreko higadura-prozesuak jasateko arrisku potentziala¹ du.

Lurzoruaren nekazaritza-erabilerari dagokionez, ikusten da beharrezkoa dela nekazaritza-praktika ekologikoak sustatzea; izan ere, horrek ekar dezake isuriak arintzea, nekazaritza-kimikoen erabilera murriztea eta lurzoruen osasuna hobetzea. Nekazaritza ekologikoaren azalera 2015ekoarekiko nabarmen handitu den arren, nekazaritza-azalera osoaren ehuneko oso txikia da oraindik ere (% 3,45).

Ingurune urtarrari dagokionez, kostaldeko ur-masek egoera ekologiko eta kimiko ona dute; trantsizioko ur-masek, aldiz, erabilera antropikoari eta kutsadurari esleitutako datu desegokiak erakusten dituzte. Ur-masa horiek arreta berezia beharko dute etorkizunean, itsasoko ekosistemetan duten eragina dela-eta. Ur-baliabideei eta hornidurari lotutako gainerako ur-gorputzei dagokienez –hala nola ibaiak, urtegiak eta lurpeko urak–, ur-masa horien bilakaera eta egoera ona dira egindako analisiaren arabera, kasu jakin batzuetan izan ezik. Etorkizuneko ebaluazioei begira, garrantzitsutzat jotzen da gaur egungo ur-erazketa mailai eta horien erabilerei buruzko informazioa edukitzea.

Bestalde, plangintzaren eremutik detektatu da klima-ekintzaren testuingurua sakon aldatu dela nazioartean 2015ean KLIMA 2050 Estrategia onetsi zenetik. Arintzea eta moldatzea agenda politikoaren lehentasunen artean kokatu dira gobernantza-maila guztietan. Nazioarteko arintze-helburuen anbizio-maila nabarmen handitu da, eta moldatzeak aurrekaririk gabeko garrantzia hartu du. Testuinguru berri horretan, **KLIMA 2050 Estrategian ezarritako arintze- eta moldatze-helburuak berrikustea eta eguneratzea gomendatzen da.**

¹ Higadura potentziala da lehendik dagoen landaredia ezabatuz gero sortuko litzatekeena.

KLIMA 2050 Estrategia eguneratzeko eta Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024 egiteko, **helburu handizaleagoak proposatu beharko dira, nazioko eta nazioarteko helburu berriein bat etorritz.**

Bestalde, KLIMA 2050 Estrategiak bost urteko aldiak ezartzen ditu ekintza-planak egiteko. Edonola ere, estatuko eta Europako egungo plangintza-testuinguruarekin bat etorritz, **egokiagoa da ibilbide-orri zabalagoak ezartzea (hamar urtekoak) klima- eta energia-politiken eraginkortasuna hobetzeko.**

Azken urteotan, halaber, paradigma aldatu da energia- eta klima-plangintzaren arloan nazioartean. Energia-plangintzaren eta klima-plangintzaren arteko bereizketa historikoa alde batera uzten ari da, gaur egun bi politika horiek integratzeko joera baitago, EBk bultzatuta; politiken eraginkortasuna bi alderdietan handitzea dute xede bi dimentsioak integratzen dituzten energia eta klimaren plan nazional integratuek (PNIEC). Euskadin, klima-politikak eta energia-politikak koordinatuta egon dira gaur egun arte, baina ez integratuta. Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2021-2024k –une honetan izapidetzen ari denak–, energia-politikak arintzearekin ez ezik, klima-aldaketarako moldatzearekin ere integratzen ditu.

Era berean, KLIMA 2050 Estrategiaren eraginkortasuna indartzeko, **egokia izango litzateke energia- eta klima-plangintzari arau-esparru espezifiko bat ematea**, politika horiek garatzeko behar den segurtasun juridikoa emango diona. Alde horretatik, **gai horiek biltzen dituen lege-proiektu** bat lantzen ari da Eusko Jaurlaritza gaur egun. Gainera, funtsezkoa izango litzateke energia- eta klima-plangintza horren aurrerapenean lege-proiektu honek toki-erakundeek klima-plangintza egokia garatzeko beharra aurreikustea, Europa mailan alderatutako beste esperientzia batzuetan ezarri den bezala. Norabide horretan bertan, klima-aldaketen arloko gobernantza hobetzeko ahaleginak areagotzea komeniko litzateke (erakundeen arteko koordinazioa indartuz eta Euskal Administrazio Publikoko langileak ahaldunduz), eta, aldi berean, herritarren parte-hartzea, Europar Batasunaren aktibismoa eta sektore pribatuaren inplikazioa handitzea.

Bestalde, KLIMA 2050 Estrategiaren ebaluazio-prozesuak zailtasun batzuk izan ditu, moldatzearen arloko adierazleen eta helburu kuantitatiboen definizioarekin erlazionatutako zailtasun teknikoak (nazioartean ere gertatu direnak) tarteko. Beste zailtasun bat sortu da helburu, jomuga eta jarduketa-lerro desberdinetako aurrerapenaren jarraipena egiteko aurrez definitutako adierazle-sistematik ez egotearen ondorioz. Era berean, gaur egun ez dago informaziorik zenbait lerrotako aurrerapena ebaluatzeko erabilgarriak izan daitezkeen adierazle batzuei dagokienez. Muga horiek nabarmenagoak izan dira moldatzearen eremuan; izan ere, eremu horretako metrikak hastapenetan daude, oraindik ere, nazioartean. Horregatik guztiagatik, **gomendatzen da KLIMA 2050 Estrategia eguneratzean jarduketa-lerro bakoitzerako zenbait helburu neurgarri sartzea, baita jarraipen-adierazleen multzo bat ere**, Estrategiaren

“Helburu handizaleagoak proposatzea gomendatzen da, nazioko eta nazioarteko helburu berriein bat etorritz”

aurrerapen-maila zehatz-mehatz ebaluatzeko. **Era berean, egokia izango litzateke monitorizazio-sistema espezifiko bat ezartzea jarduketa-lerro bakoitzerako, lerroen eta helburuen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.**

Bestalde, aipatu behar da 2020. urtean erabat hautsi dela bizitzeko, lan egiteko eta kontsumitzeko gure modua, SARS-CoV-2 koronabirusa agertzearen ondorioz.

“Pandemiaren ondorengo susperraldi ekonomikoaren testuinguruan, ekonomia suspertzeko funtsak klima-helburuekin lerrokatzeko aukera aprobetxatu beharko litzateke”

Pandemiaren ondorengo susperraldi ekonomikoaren testuinguruan, ekonomia suspertzeko funtsak klima-helburuekin lerrokatzeko aukera aprobetxatu beharko litzateke, inbertsioak karbonoan neutroak eta erresilienteak diren ekonomia eta gizartea sortzera bideratuz. Izan ere, 2020ko uztailean susperraldi ekonomikorako Europako funtsak onetsi izanak

aukera bikaina dakar energia-trantsizioa bizkortzeko eta lurraldearen erresilientzia lortzeko; izan ere, Europako aurrekontuaren eta [“Next Generation EU”](#) programaren baliabideen % 30 klima-ekintzara bideratu behar dira.

Euskadi jada hasi da neurri batzuk hartzen norabide horretan: eraikinetan energia-efizientzia hobetzeko planak, inbertsioak eguzki-energia termikoan, geotermikoan edo etxebizitzetako autokontsumo-instalazioetan... Hala ere, funts berriekin klima-ekintzarako aukerak askoz harago joan daitezke. Ekonomia suspertzeko beharrezkoak diren inbertsioek Euskadiko industria-sarea indartuko duten eta lurraldearen erresilientziari eta ekonomiaren deskarbonizazioari lagunduko dieten etorkizuneko sektoreetara bideratuta egon beharko lukete, enplegu “berdeak” eta kalitatezkoak sortuz.

Azken ondorio gisa, nabarmendu behar da azken bost urteetan Euskadik aurrera egin duela klima-aldaketaren erronkan. Hala ere, ezarritako helburuak lortzeko ahalegina handitu behar da. Gainera, klima-krisiaren larrialdiak anbizioak nabarmen

handitzea eta sektore guztietan ahaleginak areagotzea eskatzen du, planetaren tenperaturaren igoera mugatzeko eta lurraldearen klima-aldaketaren efektuen aurreko erresilientzia handitzeko.

“Azken bost urteetan Euskadik aurrera egin du klima-aldaketaren erronkan. Hala ere, ezarritako helburuak lortzeko ahalegina handitu behar da”



LIFE 18 IPC 000001

U R B A N **X** L I M A 2 0 5 2